
EMAKUMEAK EUSKAL HERRIAN

“IZAN ZIRELAKO GARA ETA GARELAKO IZANGO DIRA”

Maite Agirre

Artikulu xume honen helburua Euskal Herriak datozen hamarkadan izango duen erronka garrantzitsuetariko baten inguruko gogoeta bat egitea izango da, baina horretarako ezinbestekoa da nondik gatozen eta zer izan garen azaltzea. Euskal Herrian eta oro har munduak duen erronka amankomuna da.

Autogobernuaren helburuetariko bat XXI. mendearen hasierarako Euskal Herria mundu mailako lurralde aurreratuenen artean egotea da, baina horretarako ezinbestekoa da besteak beste gizartean emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna izatea, elkarrekin bakarrik lortu ahal izango baita helburu hau.

Euskal Herriko historiako liburuetan agertu ez arren historia egin eta herriaren nortasuna definitu duten emakumeak asko dira, nahiz eta emakume izen gutxi etortzen zaizkigun burura. Gogoratu behar da emakumeari ez zaiola oraintsu arte bere “protagonismoa” aitortu, honek liburuetan gizonek gizonentzat idatzitakoa batu izana ekarri du.

Euskal emakumearen “rol-a” oso definituta egon da, zenbat aldiz entzun dugu “Euskal Matriarkatuaz” hitz egiten? Nahiz eta eguneroko errealitatetik zenbat aldentzen edo gerturatu izan den ez jakin, edo hausnartu ez izan.

Atzera begiratzen bada, ama izatea eta familiaren zaintza izan da Euskal Herriko emakumeen lehentasun nagusia, oinarritzko balorea familiak izan du Euskal gizarteak eta oraindik ere mantentzen da. Emakumeak tradizionalki, ezkondu eta lehen helburua seme-alabak izatea zen, bizirauteko beharrezkoa baitzen ondorengoak izatea eta hau, emakumearen ardura zen.

Bestalde, familiaren ongizatearen ardura guztia emakumearen izan da, eta noski, familia aurrera ateratzeko etxeko lan guztiak bere gain hartu izan ditu. Emakumearen ardura etxea “aurrera” ateratzea izan da; janaria prestatu, arropak josi, garbitu, ume/nagusien zaintza, merkatura jaitsi ... eta hasiera batetan gizonezkoak zoroa lantzea zuten ogibide baina XIX industrializazioarekin bat, gizonezkoak etxetik kanpo lan egitera joateko mugimendua sortu zen.



Esan beharra dago, honek ere mendeetan zehar baserrien iraupena bermatu izan duela, hasiera batetan familiako kide guztiek lan egin behar izan baitzuten baserrian biziraupenerako; baserria Euskal kulturaren adierazle izan da eta da.

Aurrekoak, Euskal Herriaren identitatea definitzen laguntzen du, euskal emakumea izan baita seme-alaben (baita nagusien) zaintzaile eta bera izan da umeak hazi eta irakastearren arduradun; ez bakarrik irakurtzen edo idazten, baizik eta baloreen transmisioan, euskal kulturaren transmisioa, hizkuntza, ohiturak, tradizioak, ... belaunaldiz belaunaldi transmisio honen arduradun izan da emakumea edota aitona-amonak ere, kasuan kasu.

Orain duela gutxi arte, etxetik kanpoko lanak gizonari bakarrik zegokion eta etxe barrukoa emakumezkoari, hau da, espazio pribatua emakumeari eta espazio publikoa gizonezkoari; kalea, auzoa, herria.

Sarreran aipatu bezala, Euskal herriko historian emakumeen presentzia garrantzitsua izan da, nahiz eta ezkutuan geratu izan, esaterako; Anbotoko Mari ama lurra euskal mitologian, edota, Bizenta Mogel lehen euskal emakume idazle Azpeitiarra, edota Bergararra den Ana Txintxurreta, EAJk sortutako emakume abertzale batzako kide, erbesteratua izan behar izan zuena.

EAJ sortutako emakume abertzale batzak ere bere eragina izan zuen emakumeen politika parte hartzean. Batzak hasiera batean bat egin zuen emakumearen irudi tradizionalarekin; gizoni laguntza eskaintzea izan zen euren egin beharra, bai gerra aurreko urteetan baita gerra ondoren ere.

Hasiera batetan gizonen menpe zeuden emakumeak euren jardun politikoetan ... hala ere hauteskunde garaien presentzia nabaria hartzen joan ziren, nahiz eta garai zailak izan.. Honek emakumei biltzeko/elkartzeko aukera eman zien, espazio publikora "salto" egiteko aukera. Parte hartze soziala eta politikoa handituz joan zen.

Honek, gizartearen eraldaketaren hasiera ekarri zuen emakumearen parte hartzea arlo publikoan zabaltzen joan zen, emakume gutxi batzuk etxetik kanpo lanean hasi ziren, ondorioz poliki-poliki familia eta gizarte eredu berria sortzen hasi ziren.

Hogeita hamar bat urte inguru pasa dira honetatik eta gaur egun Euskal gizartean garai bateko familiaren baloreak errotuta jarraitzen du, hau Euskaldun identitatearen seinale da, besteak beste.

Baina, emakumearen papera gizartean ez da aldatu; etxetik kanpoko lana, etxeko lanak, umeen/nagusien zaintza ... emakumeen gain jarraitzen du. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko "rol-ak" tradizionalki izan duen pisua nabaria jarraitzen izaten du.

Egia da, gizartean familia eredu desberdinak aurki genitzakeela; ezkonduetako bikoteak, gizon edo emakume banatuak, guraso bakarreko familiak, sexu berdineko bikote/familiak ... baina



generoaren ikuspegitik emakumearen “rol-a” oraindik ere ez da aldatu, gizarteak bultzada bat behar du, eredia aldatzeko.

Argi dago, erakunde publikoen lana ezinbestekoa dela gizartearen garapenerako. Nahiz eta geroz eta gehiago diren erabaki gune garrantzitsuetan ikus ditzakegun emakumeak, edota lehen aipatu diren familia eredu berriak, baina oraindik ere asko dago egiteko.

Horretarako ezinbestekoa dira Euskal administrazio publikoek berdintasun politikak garatzen jarraitzea. Egia da, azken urte hauetan berdintasun politiken garapena izugarria izan dela; lege eremuan, Emakunderen sorreran, sentsibilizazio kanpaina bitartez, protokoloak, ... kontzientzia aldaketa bat eman da.

Gaur egun dagoeneko ez dira zalantzan jartzen hainbat errealitate, nahiz eta gizarteak ez duen asmatu emakumezkoen eta gizonezkoen artean nola lortu berdintasuna bizitzako esparru guztietarako.

Honen arrazoi bat izan daiteke, berdintasuna gizonen ikuspuntutik jorratu izan dela eta hori aldatu beharra dago, gizartean erabateko eraldaketa lortzeko emakumea ere boterearen erdigunean egon behar da.

Gainera, gizartearen inplikazioa ere ezinbestekoa izango da garapen hau lortu ahal izateko. Euskal gizartea tradizioetan errotutako gizartea izan arren, ezin du onartu emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunik. Ibarretxe Lehendakariak 2004an esan zuen moduan "berdintasunik gabeko mundua, demokraziarik gabekoa da" .

Erronka nagusienetakoa da hauex; gizarte osoaren inplikazioa lortzea, jarrera aktiboa lortzea, gizarteak barneratu beharra dauka berdintasunean aurrera egiteko eta etorkizunari erantzun egokia emateko ezinbestekoa dela. Funtsezkoa, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, ezinbestekoak biak, etorkizunaren eraldaketarako.

Argi dago, Euskal Herriak mundu mailako lurralde aurreratuenen artea kokatzeko ezinbesteko duela erronka hau gainditzea, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna lortzea; biek batera osatzen duten talentuak elkartuz bakarrik lortuko baita Euskal Herriaren etorkizun oparoa.

Amaitzeko gogoeta, Euskal Gizartearen garapenerako ezinbestekoak izan garelako eta izango garelako; gutako emakume bakoitza baliotsuak gara eta sinetsi egin behar dugu hala dela, sarri ahaztu egiten zaigulako, guk ere egungo eta etorkizuneko liderrak izateko aukera dugu, gure amonei zor diegulako eta gure alabek bizitza merezi dutelako.